

EUSKOTRENEK GAUEKO ZERBITZU BEREZIA ESKAINIKO DU BERMEOKO 'BAY OF BISCAY' JAIALDIRAKO

Larunbatean, uztailaren 27an, gaueko zerbitzua indartu egingo da jai eremura sarrera errazteko helburuarekin

Euskotrenek uztailaren 27tik 28rako gauean gaueko zerbitzua emango du Bermeo-Gernika-Bermeo tartean 'Bay of Biscay' jaialdiko joan-etorriak errazteko. Gau osoan zehar zerbitzua egongo da, ordu bateko maiztasunarekin.

Informazio gehiago behar duten erabiltzaileek Euskotrenen honako telefono zenbaki honetara dei dezakete 944 333 333. Horrez gain, informazioa jaso dezakete Euskotreneko langileak dauden geltokietan eta geralekuetan, konpainiaren www.euskotren.eus web gunean, Euskotreneko APP ofizialean, eta [@euskotrenEJGV](https://twitter.com/euskotrenEJGV) twitter gunean.

Igorpen data: asteazkena, 2019ko uztailaren 24a

Euskadi, auzolana, bien común

